

## JOSE BASTERRETXEA MATONI 'OSKILLASO'

*Sohiuta, 1996-07-20*

Jose-Eliseo Basterretxea Matoni, Euskaltzaindiak euskaltzain urgazle 1964.eko urriaren 30ean izendatu zuena, Iruñean hil zen aurtengo apirilaren 25ean. Madrilen 1911.eko abenduaren 9an jaioa izan arren, gernikartzat zeukan bere burua, jaio berria zela Gernikara ekarri zuten familiakoek eta. Aita, Juan Pedro Basterretxea Iraurgi, itsasuntzietako kapitaina zen eta Madrilera lehorreratu zen batean, Pilar Matoni Parra emazteak, haurdun zegoelarik, hara jo zuen senarrarekin biltzera eta han jaio zen Jose, seme nagusia. Gero, Gernikan jaio ziren Joseren nebarrebak: Itziar, Jon eta Karmentxu.


Gernika-Lumoko Saraspe auzoan bizi ziren, Asilo Calzada kalean, ni jaio nintzen etxetik berrogeita hamar metrotara. Aurrez aurre zegoen Onaindiatarren okindegia eta gero pelotari famatuak izango ziren Dionisio eta Antonio lagun minak izan zituen haurtzaroan eta *Kurloiak* liburuan kontatzen dizkigun barrabaskeria eta pasadizuen kideak, izenak aldatuz, jakina. Liburu horretan agertzen den Patxi dugu Jose Basterretxea haurra, aitak Patxiri esaten baitio: "Hemen dator gure oskillaso". 1967an idatzi zidan gutun baten esaten zidan Basterretxeak aipatu liburua komentatzen ari zenean:

Enintzan konturatu zuk lez askok pentseko ebela neu nazela Patxi aitak "oskillaso" esaten eustala ipinten dotenian. Neure aitak alan esaten eustan erderazko "ganso" esan gura ebanian. "Oskillasadak" egitea erderazko "hacer gansadas" zan gure etxean.

Oskillasadak egiteko bazeuzkan, Onaindiatarretatik aparte, auzoko beste lagun batzuk ere, eta Agustindarrek Gernikan zeukaten ikastetxean aurkitu zituen oskillasade-tarako kide gehiago. Han ezagutu zituen, beste batzuren artean, Jose Villasante (Luis Villasanteren anaiordea), Imanol Berriatua, Andoni Pertika eta beste. Ikastetxe horretan egin zituen batxilergoko ikasketak, Bilboko institutuan azterketak eginez, *Kurloiak* liburuan kontatzen digunez. Ikasle ona izan omen zen. Ikastetxe horretan argitaratzen zen *Guernica* aldizkarian, 14 urte zituenean (1926, maiatza) argitaratu zioten Don Kixoteren lehen argitaldiaren azala, berak iruditua. Eta hurrengo urtean (1927, abuztuan) bere lehendabiziko idazlana: "Caso de conciencia. Cuento que óf contar a mi abuelo". Beraz, 15 urtekin erakutsi zuen idazteko moldea. Baina irudia dela eta, berandu izan orduko, zerbait esan behar dut. Irudigile eta margolari edo pintorea izan zen Basterretxea, ehundaka oleo eta akuarelak pintatu baitzituen. Familiatik zetorkion honetarako trebetasuna. Aitaren anaia zen Benito Basterretxea —Onaindiatarrek esan didatenez— zurgin eta irudigile ona zen. Gernikako Andra Maria parrokiaren 1928an jarri ziren aldare berriak osaba Benitok egin zituen. Iruñeko Sanguesa kalean bizi izan zen etxean, eta alarguna bizi denean, hainbat oleo gordetzen dira, tartean emazteari egin zion erretratua. Seme-alabek ere hainbat gordetzen dituzte beraien etxeetan. Eta ez da gehiegikeria esatea mu-

sikaria ere bazela, biolontxeloja jotzen baitzuen. Horregatik, Jose Antonio Cabases jaunak (oraingo politikoaeren aitak) "El Sabio" deitzen zion. Etxeko konponketa guztiak egiteko trebea zela esan zidan alargunak, uztailearen 2an bisitatu nuenean.

Baina goazen berriz biografiaren harira. Ez zebilen osasunez ondo gure Oskillaso: zeukan arnasestuaeren gaisotasunerako ez zion batere mesederik egiten Gernikako klima umelak, eta batxilergoa Gernikan bukatu ondoren, unibertsitateko ikasketak hastera-koan, Valladolidera joan zen 1928an, Zientziak ikastera. Madrilen bukatu zituen ikas- ketak 1933an. Ordurako aitak itsasuntziak utzita zituen eta Madrilen zegoen Marinako Ministerioan enplegatua. Beraz, familia osoa, lehendabizi Valladoliden eta gero Ma- drilen bizi izan zen Joserekin batera. Hogeita lau urte zituenean, Eusko Ikasle Batzaren burua izendatu zuten Madrilen eta 1936an gerra hasi zenean, Madrilen zeuden ikasle eta hainbat euskaldunei babesa eman beharrean aurkitu zen, Jesus Galindez-ekin batera. Ordurako, behin Matematika Zientzien karrera bukatu ondoren, ingeles ikasketak egin zituen akademia batean. Gerraren atzaparrak, Francoren eskutik, harrapatu orduko, 1937an Parisera joan zen. Rue des Mauvais Garçon kalean bizi zela esaten zuen, Pa- riseko lekurik merkeenean, eta jateko diru apurrak irabazteko matematika eta ingeles klaseak ematen zituen. Bide batez frantsesa ikasi zuen eta Sorbonako Unibertsitatean ikasturte bat burutu zuen. Baina Parisen bizimodu eskasa zeramanez, gerra 1939an bu- katu zenean Bartzelonara etorri zen, non familia zegoen.



Hogeita hamar urte zituela, Iruñera etorri zen lehen aldiz bizitzera, lana aurkitu baitzuen. Orain Argentinako plaza deitzen dena “Vinculo”ko plaza zen orduan eta han zegoen Institutuan Jose Agerrek utzi zuen lanpostua bete zuen, hots, ingeles irakaskuntzako. Baina urte pare bat Iruñean bete ondoren Madrilerako doakigu berriz Jose Basterretxea, oraingoan matematika irakasle gisa. Zegozkion berronespenekin, Fisika karrera bukatu zuen Madrileko Unibertsitatean 1943/1946 urteetan. Baina Matematika eta Fisikako bi unibertsitateko tituluak eduki arren, hizkuntzak eta hizkuntzalaritzak dute benetako eragina Oskillasorengan. Sei urtez dihardu Leridan (1946-1952) ingeles klaseak ematen bertako institutuan. Madrilen bi urte egon ondoren (1953-1954) behin bertako dator Iruñera 1955ean. Viana Printzearen institutuan ingeles irakasle izango da berriz, hamairu urte lehenago bezala.

Atarrabiako Maria Dolores Moreno Cendoz anderearekin ezkondu zen 1957.eko uztailaren 5ean. Bi seme-alaba izan zituen emazte honekin: Juan Pedro (1959-08-07) eta Maria Dolores “Mirentxu” (1961-05-22). Ezkondu zen urte honetan Opus Dei-ren Nafarroako Unibertsitatean fisika klaseak eman zizkien osasungintzako ikasleei. Baina ingelesaren irakaskintza zen ogibidea eta azkenean lortu zuen 1959an ingeles katedra Viana Printzearen Institutuan, non jarraitu zuen 1981ean jubilatuta arte. Hamabost urte iraun zuen jubilatuta hil arte. Gernikako bonbardaketaren 59. urteurrena gogoratzen genuen egunean agertu zen Jose Basterretxearen eskela egunkarian.

Biografia labur honen azkenerako utzi dut, apropos, Oskillasok euskararekiko zuen grina. Jose Agerre euskaltzainaren hutsunea bete zuela ingeles irakaskuntzan esana da. Gauza bera egin zuen 1971tik 1986 arte Jose Migel Barandiaranen hutsunea bete zuenean Opus-eko Unibertsitatean euskal kultura eta euskara irakatsiz. Hamabost urteko esperientziak eman zion, ingelesaren irakaskuntzan erabilitako pedagogia eta metodologiak gain, euskara irakasteko aukera: 1980-1981 urteetan argitaratu zuen *El vaso de hoy* metodoa, hiru tomotan. Eta 22 urte lehenago asmatu zuen “euskara osotua”ren ildotik jarraituz, kritika zorrotza egin zion 1984ean “euskara batua”ri *El libro negro del euskara* liburu mardulean. Kaleratu baino lehen makinazko kopia eman zidan eta bi aldiz edo bildu ginen Gernikan eta Bilbon idatzitako guztia nahi zuelako nirekin irazkindu. Gernikarra nintzelako eta Gernikako euskara nolabait oinarrituz hartzen zuenez, amore emango niola uzte zuen. Izan genituen eztabaidak, baina berean jarraitzen zuen. Eta aldaketa txikiren batekin atera zen liburua. Azken urte hauetan, bibliografietan agertzen ez diren liburu batzuk atera zituen: elaberri arloan *Gabeko atorra*, eta itzulpen munduan Mark Twain-en *Erregagaia eta eskekoa* eta Charles Dickens-en *David Copperfield*, biak 1986an. Argitaratu gabe utzi du gaztelaniazko elaberri bat, *Los gemelos de Iurriondo*.

Lan finko batekin familiaren sostengua ziurtatu zuenean, euskararekiko lanetan hasi zen Oskillaso. Hizkuntza idatziaren batasuna zen lehen helburua. Baina Azkueren “Gipuzkera osotua”rekin ez zetorren ados eta euskalki guztiak “euskara osotua” lortzeko teoria proposatu zigun 1962an *Kurloiak* liburuaren hitzaurrean. *Ez zen bat bateko asmakizuna*, “bederatzi bider idatzi nuan *Kurloiak* lehenbiziko orritik azkeneraino, bethi azkenekoa izanen zelakoan” esaten zion Mitxelenari. Liburua atera berria zelarik, *Aranzazu* aldizkarian (1962) azaldu zuen Luis Villasantek irazkina eta Mitxelenak ere zer bait esan edo idatzi omen zuen Oskillasoren liburuaz eta teoriak. Biei erantzun zien Basterretxeak *Egan* aldizkarian: “Ihardespen bat Aita Villasanteri” (1962) eta “Ihardespen bat Mitxelena jaunari” (1963).

Fonologia zen Oskillasok landu zuen beste euskararekiko arloa. “Estudio sobre entonación vasca según el habla de Guernica” argitaratu zuen *Fontes Linguae Vasconum* aldizkarian (1974, 1975) eta aldizkari berean “Hizkera-soinua dela ta” (1976). Aholkeraren arlo hau aztertu zuen Jose Basterretxeak Udako Euskal Unibertsitateak Iruñean, 1992.eko uztailaren 28an, eskaini zion omenaldian, Txillardegik egin zuelarik Oskillasori buruzko laudorioa, gerra ostean euskara batuaz idatzi zuen lehena gernikar hau izan zela baieztuz. Euskal Idazleen Elkarteak ere omenaldia eskaini zion Zestoan 1995.eko martxoaren 25ean. Entonazioari buruz bi lan prestatu zituen Basterretxeak Euskaltzaindiarentzat: “Gernikako hizkeraren arabera, euskal entonazioari buruz ikerketak”, Azkoitiko Jardunaldietan irakurri zuena (1982) eta “Euskal azentoa” Durangon 1986an aurkeztu zuena.

Ipuinlari ona ere izan zen gure Oskillaso eta ipuin bat baino gehiago argitaratu zituen *Egan* aldizkarian. Argitaratu gabe geratu zen ba ten berri eman behar dut hemen. Euskaltzaindiak eta Bizkaiko Aurrezki Kutxak 1967an antolatu zuten “Kirikino” sari-keetan, Juan Antonio Letamendiak irabazi zuen lehen saria; baina Oskillasori diploma ematea erabaki zuten epaimahaikoez, ipuin honi hain zuzen: “Euskalerriko baserrietan baño abadezaletasun geiago Madrillen”. Jose Artetxek esan zuenez, humore ingelesa darabil Oskillasok bere ipuinetan. Ez zen alperrik Ingalaterrara joaten udako oporretan.

Hil zenetik hiru hilabetera eskaintzen dio Euskaltzaindiak Jose Basterretxea “Oskillaso”ri omenaldia. Gera bedi gure gogoan euskara batuaren alde hainbat lan egin zuen gernikar honen itzala.

Jose Antonio Arana Martija